

PRENTSA OHARRA

Udan astelehenetan zabalik egongo da Guggenheim Bilbao Museoa

Bistró Guggenheim Bilbao jatetxean ere udako ordutegiarekin arituko dira abuztuaren 31 arte

Datorren astelehenetik, uztailaren 6tik aurrera Guggenheim Bilbao Museoa uztaileko eta abuztuko astelehen guztietan zabalik egongo da, 10:00etatik 20:00etara. Udaldian Bilbora bisitari asko etortzen dira eta haiei arreta egiteko asmoz egiten da aldaketa hau. Arrazoi beragatik, Bistró Guggenheim Bilbao jatetxeak ere udaldian ordutegia luzatuko du.

Guggenheim Bilbao Museora udan gerturatzen direnek honako arte programazio erakargarriaz gozatu ahal izango dute: *Jeff Koons: atzera begirakoa* erakusketa arrakastatsua; zabaldu berria den *Jean-Michel Basquiat: Bada garaia*, eta Museoak urtero aurkezten duen *Artea ikasbide*, ikasturtean EAEko ikasle talde batzuek landutako obra sorta erakusten duena. Bestetik, lehenengo solairuan, uztailaren 16tik aurrera Shahzia Sikanderren bideoinstalazioa egongo da ikusgai, Film & Video gunean.

Bistró Guggenheim Bilbao jatetxean eta Bar Guggenheim Bilbao tabernan udako ordutegiarekin arituko dira eta astelehen guztietan zabalik egongo dira. Alde batetik **Bistró Guggenheim Bilbao** jatetxean abangoardiako ikuspegitik interpretatzen dituzte usadiozko Bilboko jakiak, eta nortasun handiko gune informal baina berezian dasta daiteke karta neurrizko prezioan, bazkaltzeko nahiz afaltzeko. Terraza ikusgarria, gainera, goizaldeko ordu 1era arte zabalik dago. Bestetik, **Bar Guggenheim Bilbao** taberna ere 09:30etik 20:30era zabalik egongo da. Inguruko produktu onenak eta abangoardiako sukaldaritzak bat egiten dute bertan. Gune hau bai hiria bisitatzeko daudenei bai bilbotarrei zuzentzen zaie.

Argibide gehiago:

www.guggenheim-bilbao.es o tel. 944 359 080

www.bistroguggenheimbilbao.com o tel: 944 239 333

Bilbon, 2015eko uztailaren 3an